



Greba orokorra Espainian

# PSOEren Gobernuaren aurkako bigarren greba orokor handia izango da gaur

## Poliziak pikete biolentoei gogor erantzuteko agindua jaso du

**L**angabeziarako laguntzak murrizten dituen 'dekretukadak' PSOEren Gobernuaren aurkako bigarren greba orokorra handia ekarriko du gaur. UGT, CCOO eta sindikatu txikiek antolatu duten greba bost ordukoa izango da leku eta sektore gehienetan. Murcian, Balear Irletan eta Huelvan, ordea, egun osokoa izango da eta Asturiasen zortzi ordukoa.

I.A / DONOSTIA

Goizeko zazpiak eta eguerdia arte iraungo duen grebak alde zein kontrako jarrerak sortarazi ditu. Sindikatuak aho batez egin dute grebarako deia eta zenbait alderdiren laguntza jaso dute, IUren kasua. Bertako buruak grebaren aldeko agiriak banatu zituzten atzo kaleetatik eta ez dira ezta Kongresura ere agertuko. Julio Anguita IUko behin-behineko koordinatzaile nagusiak gogor kritikatu zuen atzo Gobernuaren politika ekonomikoa eta IUk arlo honetan «Gobernuari gerra deklaratu» diola ziurtatu zuen. IUko buruak manifestazioetan izango dira. Gainontzeko alderdi handiek, ordea, arbiatu egiten dituzte greba egiteko arrazoiak eta «normaltasunez» lan egingo dutela ziurtatu dute.

Herenegun egindako adierazpenetan, Felipe Gonzalezek aurreko egunetan esandakoa berretsi zuen, hau da, sindikatuekin negoziatzeko prest dagoela «greba aurretik eta ondoren», baina «inola ere» ez duela atzera botako Europarekiko Bateratasun Plana eta bertako atala den 'dekretukada'.



CCOO eta UGTk bat egin dute bigarren aldiz greba orokorra antolatzeko.

EFE

### Dekretukadaren puntu nagusiak

**E**nplegu sustapenerako kontratuek gutxienez urtebetekoak izan beharko dute.

- Langabezi saria kobratzeko gutxienez urtebete kotizatu behar da. Denbora honetatik behera asistentzi laguntza kobratuko da soilik: 3 hilabeteko kotizazioagatik =3 hilabete  
4 hilabeteko kotizazioagatik =4 hilabete  
5 hilabeteko kotizazioagatik =5 hilabete  
6-12 hilabeteko kotizazioagatik =6 hilabete
- Kotizatutako denboraren heren batez kobra daiteke langabezi saria.
- Langabezi sariak txikiagoak izango dira: lehen sei hilabeteetan base erregulatuaren % 70 jasoko da (orain arte % 80), ondoren % 60ra.
- Ezingo da langabezi sari guztia batera kobratu autonomo bezala lan egiteko.

Sindikatuak gaitzetsi egin dute Gonzalezen azken egunetako greba gelditzeko saioa. Nicolas Redondo UGTko idazkariaren esanetan, «ez du ezertarako balio negoziatu nahi duela esateak eta etsiko ez duela gaineratzeak».

Antonio Gutierrez CCOOeko buruak, ordea, «grebaren lehen garaipena maiatzaren 29tik aurrera negoziatzea izango» litzatekeela adierazi zuen atzo TVEn batzar batean parte hartu eta gero. Enpresarientzat greba legez kontrakoa da eta hortaz greba egiten

duen langilea kanporatu dezaketela mehatxatu dute.

### POLIZIA ETA PIKETE BIOLENTOAK

Greba zer nolako atxekidura izango duen jakiteaz gain, Polizia eta piketeen artean izan daitezkeen borrokek garrantzi berezia hartu dute. Poliziek «piketeen aurka gogor ekiteko» agindua jaso dute, Carlos Conde-Duque Poliziako zuzendari nagusiaren esanetan «patetikoak bait litzateke Polizia piketeak baino ahulagoa izatea». Polizi sindikatuak ordea, piketeekin «txukun jokatu» dutela adierazi dute eta greba eskubidea ziurtatuko dutela gaineratu. Nolanahi ere, poliziak izango dira gaur greba egingo ez duten bakarrak, eta piketeak izan daitezkeen leku guztietatik zabalduko ditu Barne Ministeritzak.

## Gutxienezko zerbitzuen borroka

DONOSTIA

Greba deialdi honetan zeresan ugari eman dute gutxienezko zerbitzuak, garraio arloetakoak batez ere. Hasieratik Gobernuak garraio zerbitzuak ziurtatzen saiatu da grebari arrakasta kendu nahian. Alde batetik, gutxienezko zerbitzuak finkatuz, lan egin nahi duen langileak bere lantokira joan ahal izango du eta besteetik, abenduaren 14eko greban ikusitako kale hutsen irudia ez da berriaz errepikatuko. Sindikatuentzat ordea, garraioa ez da ezinbesteko zerbitzua osasun ar-

loko eta larrialditarako zerbitzuak izan daitezkeen bezala eta EAE eta Katalunian ezik, ez dituzte Gobernuarekin gutxienezko zerbitzuak erabaki ahal izan. Azkenean Garraio Ministeritzak finkatu ditu gutxienezko zerbitzuak: ibilbide laburretako trenetan zerbitzua % 40koa izango da goizeko seietatik bederatzietara eta % 25ekoa ordu horretatik aurrera. Ibilbide luzean, norabide bakoitzean tren bana izango da. AHT ez da ibiliko. Aire garraioan, gutxienezko zerbitzua % 50eko izango da penintsula eta uharteen artean. Penintsula arte-

ko aireportuen artean hegaldi bana izango da norabide bakoitzean. Udal barruko garraioetan, akordioa izan da Katalunia eta Andaluzian.

Osasun arloan, Osasun Ministeritzak aurretik erabakitako ebakuntzak egingo direla ziurtatu du. Hezkuntza sektorean ez da gutxienezko zerbitzurik izango.

Komunikabideetan, TVEk ez du greba orduetan zuzenezko programarik eskainiko eta RNEK albistegiak eta musika besterik ez du emango. Katea pribatuetan langileek albistegiak besterik ez dituzte eskaini nahi.



Garraioetako gutxienezko zerbitzuek buruhauste asko eman dituzte. EFE

### Bigarren greba

**G**aurko bost orduko greba orokorra PSOEren Gobernuak jasoko duen bigarren greba da. Aurrekoa, 1988ko abenduaren 14koa, oraindik jende guztiaren gogoan dago, Gobernuak etsi egin behar izan zuen grebaren arrakasta handia zela ikusi eta gero. Abenduaren 14eko greban, Gobernuaren politika ekonomikoa —«liberal-legia» sindikatuaren ustez— aldaketa eta Gobernuak prestatutako Gazteentzako Enplegu Plana atzera botatzea eskatzen zuten UGT, CCOO eta gainontzeko sindikatuak. Bi gai horietaz gain, langabeziarako laguntza langabetuen % 48 zabaltzea eta gutxienezko pentsioak gutxienezko soldataren parekoak izatea exigitzen zuten sindikatuak. Felipe Gonzalezek bertan behera utzi zuen Gazteentzako Enplegu Plana eta sindikatuekin negoziatzera eseri zen. Negoziazioak urtebete beranduago amaitu ziren.

Greba horrek eragina izan zuen ere politika munduan. Ordura arte elkarloturik izan ziren PSOE eta UGTren arteko harremanak hoztu egin ziren. UGTko militanteak —PSOekoak era berean— greba egin zuten lehen aldiz Gobernu sozialistaren aurka. Aurretik, 1985eko ekainaren 20an, CCOOek greba orokorra antolatu zuen pentsioak murrizten zituen planaren aurka. UGTk ez zuen bat egin greba horrekin eta bere arrakasta mugatu zen. Hala ere, orduetik okertuz joan ziren sindikatu eta alderdi sozialistaren arteko harremanak, lehenengoan esanetan, «Gobernuaren politika liberalaren erruz». PSOEko diputatu ziren Nicolas Redondo eta Anton Sarazibar UGTko buruek eskainua utzi egin zuten 1988ko aurrekontuetan gastu sozialak asko murriztu zirelako.

Teorian bere hautesle ziren langileen konfidantza galdu arren, oraindik ere PSOEren alde botoa ematen dute, neurri txikiagoan bada ere.